

# GUTUN ZURIA PRO

---

LIBURUAREN MUNDUA.  
EDITATU / ARGITARATU

EL MUNDO DEL LIBRO.  
EDITAR / PUBLICAR

---

OTSAILAK 26, 27  
FEBRERO 26, 27

AZKUNA  
ZENTROA  
ALHÓNDIGA  
BILBAO

[gutunzuria.azkunazentroa.eus](http://gutunzuria.azkunazentroa.eus)

**B**ilbao

# LIBURUAREN MUNDUA. EDITATU / ARGITARATU

Gutun Zuria Bilbao. Bilboko Letren Nazioarteko Jaialdia urteroko topagunea da, literaturak arte garaikidearen sistemarekin duen harremanaz jarduteko. Esparru horretan egiten da Gutun Zuria PRO. Bi jardunaldi profesional horietan, liburuaren kateko eragileek gaurkotasan osoko hainbat gai eta eztabaida zirriborratzen dituzte, pentsamendu kritikotik abiatuta.

Edizio honetan, topaketa profesionalak *editatu* eta *argitaratu* izango ditu ardatz, jarduera hori eta haren funtzionamendua biltzen dituzten bi aditz. RAE-ren arabera, editatu da lan bat argitaratzeko prestatzea, testuaren itxura, estiloa edo edukia zainduz; eta argitaratu, berriz, liburu bat edo bestelako izkriburen bat paperean edo formatu digitalean kaleratzea. Bi aditzek elkar elikatzen dute, jardunaldi hauetan irudikatutako liburuaren kateko katebegiek egiten duten bezala.

Egiletzatik hasi eta literatura-ekoizpenaren sustapenera eta komunikaziora, ediziotik eta inprimaketatik igarota, jardunaldi hauetan parte hartuko duten hogeita hamar eragilek liburuaren egungo argazkia eskainiko dute.

Argitaletxeek, idazleek, ilustrazioaren munduko profesionalak, inprimategiek, sare sozialetako edukien sortzaileek eta jaialdi eta azoken antolatzaileek beren erronkak eta helburuak adieraziko dituzte, aurrerapen teknologikoen eta, aldi berean, zentsuraren eta ingurumeneko larrialdiaren garai hauetara egokitzeko.

# EL MUNDO DEL LIBRO. EDITAR / PUBLICAR

Gutun Zuria Bilbao. Festival Internacional de las Letras es el punto de encuentro anual en torno a la literatura en relación con el sistema del arte contemporáneo. En este marco se celebra Gutun Zuria PRO, dos jornadas profesionales en las que agentes de la cadena del libro esbozan diversas cuestiones y debates de actualidad desde un pensamiento crítico.

En esta edición el encuentro profesional pone el foco en *editar* y *publicar*, dos infinitivos que condensan esta actividad y su funcionamiento. Según la RAE, editar es adaptar un texto a las normas de estilo de una publicación; y publicar es difundir por medio de la imprenta o de otro procedimiento cualquiera un escrito. Dos verbos que se retroalimentan como lo hacen los distintos eslabones de la cadena del libro representados en estas jornadas.

Desde la autoría hasta la labor de promoción y comunicación de la producción literaria, pasando por la edición y la impresión, la treintena de agentes que participan en estas jornadas ofrecerán la foto actual del libro.

Editoriales, escritoras; profesionales del mundo de la ilustración, imprentas, creadoras de contenido en redes sociales y responsables de festivales y ferias compartirán sus retos y sus desafíos para adaptarse a estos tiempos de avances tecnológicos, pero también de censura o de emergencia medioambiental.

# PROGRAMA

---

## 26 ASTEAZKENA

Otsaila

---

**9:30** Jardunaldiaren aurkezpena:  
**Gorka Bereziartua**, kazetaria

### **10:00-11:00** 1. MAHAIA: EDITATU

Parte-hartzaileak:

**Julián Lacalle**. Pepitas de Calabaza. Sortzailea eta editorea

**Laureano Domínguez**. Astiberri. Editorea

**Paca Flores**. Periférica. Fundatzailea eta editorea

### **11:00-12:00** 2. MAHAIA: IDATZI

Parte-hartzaileak:

**Rosario Villajos**. Taldeko egilea

**Leila Guerriero**. Idazlea eta kazetaria

**Katixa Agirre**. Idazlea

### **12:30-13:30** 3. MAHAIA: IRUDIZTATU

Parte-hartzaileak:

**Arrate Rodriguez**. Artista eta ilustratzailea

**Sara Morante**. Ilustratzailea eta idazlea

**Andrea Ganuza**. Marraskilaria

**Cinta Fosch**. Ilustratzailea

**13:30-14:00** Bukaera **Gorka Bereziartuaren** eskutik

## **26** MIÉRCOLES Febrero

---

**9:30** Presentación de la jornada:  
**Gorka Bereziartua**, periodista

**10:00-11:00** **MESA 1: EDITAR**  
Participan:  
**Julián Lacalle**. Pepitas de Calabaza. Fundador y editor  
**Laureano Domínguez**. Astiberri. Editor  
**Paca Flores**. Periférica. Fundadora y editora

**11:00-12:00** **MESA 2: ESCRIBIR**  
Participan:  
**Rosario Villajos**. Autora de reparto  
**Leila Guerriero**. Escritora y periodista  
**Katixa Agirre**. Escritora

**12:30-13:30** **MESA 3: ILUSTRAR**  
Participan:  
**Arrate Rodriguez**. Artista e ilustradora  
**Sara Morante**. Ilustradora y escritora  
**Andrea Ganuza**. Dibujante  
**Cinta Fosch**. Ilustradora

**13:30-14:00** Conclusiones a cargo de **Gorka Bereziartua**

# PROGRAMA

---

**27** OSTEGUNA  
Otsaila

---

**9:30** Jardunaldiaren aurkezpena: **Inés García** eta **Paula Ducay**, **Punzadas Sonoras** podkasta

**10:00-11:00** **1. MAHAIA: INPRIMATU**

Parte-hartzaileak:

**Iñaki Garcinuño**. Grupo Gráfico Garcinuño. Presidentea  
**Montserrat González**. Agpograf, S.A. Zuzendari nagusia  
**Pedro Sánchez**. Cosmos Gráfico. CEO

**11:00-12:00** **2. MAHAIA: SARE SOZIALAK**

Parte-hartzaileak:

**Lorena Fernández Prieto**. @no\_soy\_sibila  
**Sara Roqueta**. Mucho Texto podkasta. Zuzendaria eta aurkezlea  
**Lucía Pérez Oroz**. Libros del K.O. Prentsa eta sare sozialen arduraduna

**12:30-13:30** **3. MAHAIA: JAIALDIAK**

Parte-hartzaileak:

**Juan Insua**. Kosmopolis. Zuzendaria eta sortzailea (online)  
**Begoña Morán**. Bilbaopoesía. Zuzendaria  
**Sheila Cremaschi**. Hay Festival España. Zuzendaria  
**Luis Posada**. Festival Eñe. Zuzendaria

**13:30-14:00** Bukaera **Punzadas Sonoras**-en eskutik

**27** JUEVES  
Febrero

---

**9:30** Presentación de la jornada: **Inés García** y **Paula Ducay**,  
podcast **Punzadas Sonoras**

**10:00-11:00** **MESA 1: IMPRIMIR**  
Participan:  
**Iñaki Garcinuño**. Grupo Gráfico Garcinuño. Presidente  
**Montserrat González**. Agpograf, S.A. Directora general  
**Pedro Sánchez**. Cosmos Gráfico. CEO

**11:00-12:00** **MESA 2: REDES SOCIALES**  
Participan:  
**Lorena Fernández Prieto**. @no\_soy\_sibila  
**Sara Roqueta**. Podcast Mucho Texto. Directora y  
presentadora  
**Lucía Pérez Oroz**. Libros del K.O. Responsable de  
prensa y RRSS

**12:30-13:30** **MESA 3: FESTIVALES**  
Participan:  
**Juan Insua**. Kosmopolis. Director y fundador (online)  
**Begoña Morán**. Bilbaopoesía. Directora  
**Sheila Cremaschi**. Hay Festival España. Directora  
**Luis Posada**. Festival Eñe. Director

**13:30-14:00** Conclusiones a cargo de **Punzadas Sonoras**

## Jardunaldiaren aurkezpena: Presentación de la jornada:

© Dani Blanco



# GORKA BEREZIARTUA

Kazetaria  
Periodista

Gorka Bereziartua kazetaritza kulturalaren alorrean aritu da azken 20 urteetan. Eremulauak.com web-zinearen sortzaileetako bat izan zen eta Argia hedabideko kultura sailaren ardura izan du bere ibilbidearen zati handi batean. Gaur egun, doktorego-tesia egiten ari da (EHU, UPPA) eta ohiko kolaboratzailea da hedabideetan. Alberdania argitaletxeko edizio-taldeko kidea ere bada. 2019an *Ez gara neutralak* liburua argitaratu zuen.


Gorka Bereziartua se ha dedicado al periodismo cultural durante los últimos 20 años. Fue uno de los creadores del cine web eremulauak.com, y ha sido responsable del departamento de cultura de la revista Argia durante gran parte de su carrera. Actualmente está haciendo la tesis doctoral (UPV/EHU, UPPA) y es colaborador habitual en varios medios de comunicación. Forma parte del equipo de edición de la editorial Alberdania. En 2019 publicó el libro *Ez gara neutralak*.



# EDITATU EDITAR

Argitaletxeak editatzeaz eta argitaratzeaz arduratzen dira. Testuak hautatzen dituzte, idazten duenari laguntzen diote, itzulpenak eta zuzenketak enkargatu, testua eraldatu eta jendaurrean jartzen dute. Beren erronkak eta helburuak garaietara egokitzen dira, aurrerapen teknologikoen, herrialde askotan gorantz doan zentsuraren eta behera egindako analfabetismoaren arabera.

Las editoriales son las encargadas de editar y de publicar. Son responsables de seleccionar textos, de acompañar a quien escribe, de encargar traducciones y correcciones, de transformar el texto y de conseguir que se haga público. Con los avances tecnológicos, el avance de la censura en muchos países o el decrecimiento del analfabetismo, sus retos y objetivos se adaptan a los tiempos.



Julián Lacalle Pepitas eta Los Aciertos argitaletxean editorea eta sortzailea da. la hogeita hamar urteko ibilbidea egina du edizioaren munduan, eta, besteak beste, Pablo Martínez Zarracina, Verónica Gerber, Iñaki Uriarte, Bibiana Collado, Lewis Mumford eta Anari eman ditu argitara.

## JULIÁN LACALLE

### **Pepitas de Calabaza**

Sortzailea eta editorea  
Fundador y editor

Julián Lacalle es editor —y fundador— de las editoriales Pepitas y Los Aciertos. Con una trayectoria de casi treinta años en el mundo de la edición ha publicado a autores como Pablo Martínez Zarracina, Verónica Gerber, Iñaki Uriarte, Bibiana Collado, Lewis Mumford o Anari, entre otros.



## LAUREANO DOMÍNGUEZ

### **Astiberri**

---

Editorea  
Editor

Laureano Domínguez Astiberriko editorea izan da azken 22 urteetan, eta nazioarteko eta ikus-entzunezko eskubideen lagapenarekin uztartu du lan hori.

Norma editorialeko koordinatzaile, CO & CO eta Top Cómics aldizkarietako eta *Los libros de CO & CO* bildumako erredaktoreburu, eta komiki eta zinema-liburuen editore izan da Ediciones B argitaletxean. Komikiei buruz idatzi du egunkari eta aldizkarietan, besteak beste, El Correo, Chivato, Deia, El Periódico, Diari de Barcelona, Comics Scene, Cimoc eta Comix Internacional-en. Argazkilari-lanak egin ditu The Comics Journal eta Carlsens Store Tegneserie Leksikon aldizkarietan.

Laureano Domínguez ha sido editor de Astiberri los últimos 22 años, donde compagina dicha labor con la de cesión de derechos internacionales y audiovisuales.

Ha sido coordinador editorial en Norma editorial y redactor jefe de las revistas CO & CO, Top Cómics y de la colección *Los libros de CO & CO* y editor de cómic y libros de cine en Ediciones B. Ha escrito sobre cómics en periódicos y revistas como El Correo, Chivato, Deia, El Periódico, Diari de Barcelona, Comics Scene, Cimoc y Comix Internacional. Ha colaborado como fotógrafo en The Comics Journal y Carlsens Store Tegneserie Leksikon.



Paca Flores Kazetaritzan lizentziaduna da. 2006an, Periférica argitaletxe independentea jarri zuen abian, Julián Rodríguezekin batera. Dagoeneko, hirurehun titulu baino gehiago ditu katalogoan, 19 urteko ibilbidean.

Paca Flores es licenciada en Periodismo. En 2006 puso en marcha, junto a Julián Rodríguez, la editorial independiente Periférica, con más de trescientos títulos en su catálogo y 19 años de vida.

# PACA FLORES

## Periférica

Fundatzailea eta editorea  
Fundadora y editora

# IDATZI ESCRIBIR

Askotan egiletza da liburuaren kateko katebegirik ahulena, baina, aldi berean, abiapuntua da, eta piezarik ikusgarriena eta erakusgarriena. Lanbide prekarioa da, eta idazten duenak nekez bizi dezake bakarrik idazten arituta, baina berak eusten dio liburuaren merkatuari. Erronka ugari ditu, eta maiz rol askotara egokitu behar izaten dira.

Muchas veces la autoría es el eslabón más débil de la cadena del libro, siendo sin embargo el punto de partida y la pieza más visible y expuesta. Es una profesión precaria, y quien escribe difícilmente puede dedicarse sólo a la escritura, aunque sostiene el mercado del libro. Sus desafíos son múltiples, como los roles que se ven muchas veces con la obligación de adaptar.



## ROSARIO VILLAJOS

Taldeko egilea  
Autora de reparto

Arte Ederretako ikasketak egin zituen eta hainbat industriatan lan egin du, besteak beste, musikan, zinematografian, artean eta kulturaren. *La educación física* (Seix Barral, Biblioteca Breve Saria 2023) eleberrian, nerabe baten begiradaren bidez jorratzen ditu adostasunaren gaia, emakumeen gorputza eta horrek denboran barrena izaten dituen indarkeria normalizatuak.

Formada en Bellas Artes y con experiencia en industrias como la música, el cine, el arte y la cultura, es autora de la novela *La educación física* (Seix Barral, Premio Biblioteca Breve 2023), que aborda a través de la mirada de una adolescente la temática del consentimiento, el cuerpo femenino y las violencias normalizadas que este sufre a través del tiempo.



## LEILA GUERRIERO

Idazlea eta kazetaria  
Escritora y periodista

1991tik bere testuak Latinoamerikako eta Europako hedabide askotan agertu dira. Hamar liburu idatzi ditu. 2024an, *La llamada* (2024, Anagrama) liburuak Txileko Diego Portales Unibertsitatearen Emakumeak eta Hedabideak Katedraren Saria jaso zuen, baita Espainiako Narratibako Zenda Saria ere. Hainbat hizkuntzetara itzuli dute bere lana.

Desde 1991 sus textos han aparecido en diversos medios de América Latina y Europa. Autora de una decena de libros, recibió con *La llamada* (2024, Anagrama) el Premio de la Cátedra Mujeres y Medios de la Universidad Diego Portales (Chile) y el Premio Zenda de Narrativa (España). Su obra ha sido traducida a diez idiomas.



## KATIXA AGIRRE

Idazlea  
Escritora

Katixa Agirre euskal idazlea da. Bi ipuin liburu argitaratu ditu. *Sua falta zaigu* (Elkar, 2007) eta *Habitat* (Elkar, 2009), eta ume zein gazteentzako hainbat istorioen egilea da. 2015ean bere lehenengo eleberria argitaratu zuen *Atertu arte itxaron* (Elkar), gazteleraz ere argitara eman dena *Los turistas desgandados* izenburupean (Pre-textos, 2017) eta beste hainbat hizkuntzatan ere plazaratu dena. 2018an, Augustin Zubikarai bekari esker, argitaratu zuen: *Amek ez dute* (Elkar), gazteleraz *Las madres no* (Tránsito, 2019) bezala argitaratu zena eta dagoeneko beste hamar hizkuntzatarantz itzuli dena. Mar Coll zinegilea eleberri hori adaptatu du zinera. 2022an bere azken eleberria argitaratu zuen: *Berriz zentauro* (Elkar), gazteleraz, galegoz eta katalanez ere argitaratua. EHUKo irakaslea da.

Katixa Agirre es una escritora en lengua vasca. Ha publicado dos libros de relatos, *Sua falta zaigu* (Elkar, 2007) eta *Habitat* (Elkar, 2009), y es autora de varias historias para niños y jóvenes. En 2015 publicó su primera novela, *Atertu arte itxaron* (Elkar), que también ha sido publicada en castellano, bajo el título *Los turistas desgandados* (Pre-textos, 2017), y en otros idiomas. En 2018, gracias a la beca Augustin Zubikarai, publicó *Amek ez dute* (Elkar), publicada en castellano con el título *Las madres no* (Tránsito, 2019), y traducida a otras diez lenguas. La cineasta Mar Coll adaptó esa novela al cine. En 2022 publicó su última novela, *Berriz zentauro* (Elkar), también traducida al castellano, gallego y catalán. Es profesora de la UPV/EHU.



# IRUDIZTATU ILUSTRAR

Liburu batzuk ilustratuak dira eta beste batzuk ez, baina horietako askotan ilustrazioa da ikusten den lehen gauza; liburua ireki aurretik ere, bidaltzen den lehen mezua da. Egiletza garrantzitsua da, eta, aldi berean, erronka, eskubide, nahi eta helburu asko dituen lanbidea.

Hay libros ilustrados y otros que no, pero en muchos de ellos la ilustración es lo primero que se ve: antes incluso de abrir el libro, es el primer mensaje que se lanza. Es una autoría importante y, al mismo tiempo, una profesión precaria con muchos retos, derechos, deseos y objetivos.



## ARRATE RODRIGUEZ

Artista eta ilustratzailea  
Artista e ilustradora

Arte Ederretan lizentziaduna eta graduondokoa da Ilustrazio Kreatiboa eta Ikusizko Komunikazio Teknikak. Diziplina anitzak jorratu ditu beti bere praktika artistikoan; argazkigintza, marrazkigintza, pintura, zeramika, collagea, instalazioa, azkenaldian performancea ere bai.

Bere lana literaturari estuki loturik doa. Idazketa, bere horretan lantzen ez duen arren, bere irudiek oinarrian irakurritako zerbait izaten dute inspirazio iturri gisa 2015ean, halaber, Savanna estudioa eratu zuen Carlos Ndungmandum-ekin batera. Bertan, diseinu grafikoa eta ilustrazioa uztartzen zituzten, 2020ean estudioa disolbatu zuten arte. Urte horretatik aurrera eta gaur egun arte, Rodriguez & Ndungmandum izenpean egiten dituzte modu ezberdinetako lanak, gehientsuenetan arte plastikoekin eta arte biziekin lotuak.

Es licenciada en Bellas Artes y postgrado de Ilustración Creativa y Técnicas de Comunicación Visual. En su práctica artística, siempre ha cultivado diferentes disciplinas: fotografía, dibujo, pintura, cerámica, collage, instalación y, últimamente, performance.

Su obra está estrechamente ligada a la literatura. Aunque no trabaja la escritura en sí, sus imágenes suelen tener como fuente de inspiración una lectura.

En 2015 fundó el estudio Savanna junto a Carlos Ndungmandum, en el que combinaron el diseño gráfico y la ilustración, hasta que en 2020 lo disolvieron. Desde entonces, han realizado diversas obras, bajo el nombre de Rodriguez & Ndungmandum, principalmente relacionadas con las artes plásticas y las artes vivas.



## SARA MORANTE

Ilustratzailea eta idazlea  
Ilustradora y escritora

Sara Morantek egile hauen eleberriak, ipuinak, poema-liburuak eta saiakerak ilustratu ditu: Federico García Lorca, Leon Tolstoi, Fiodor Dostoievski, Anton Txekhov, Katherine Mansfield, Virginia Woolf, Sylvia Plath, Edgar Allan Poe, Emily Brontë, Miguel Hernández, Jane Austen eta Benito Pérez Galdós.

Hirurogei liburu-azaletan baino gehiagotan aurkitu dezakegu bere lana, Carson McCullers-en gaztelaniazko obra osoan, besteak beste. 2012an Ilustrazioko Euskadi Saria lortu zuen *La flor roja*-n egindako lanagatik, eta 2008an Kantabriako Gobernuaren Arte Gaztearen Sari Nazionala eskuratu zuen Ilustrazioaren kategorian.

Egile gisa, *La vida de las paredes* (Lumen, 2015) eta *Flor fané* (Astiberri, 2021) idatzi eta ilustratu ditu.

Sara Morante ha ilustrado novelas, cuentos, poemarios y ensayos de Federico García Lorca, León Tolstói, Fiódor Dostoyevski, Antón Chéjov, Katherine Mansfield, Virginia Woolf, Sylvia Plath, Edgar Allan Poe, Emily Brontë, Miguel Hernández, Jane Austen y Benito Pérez Galdós, entre otros.

Su trabajo se puede encontrar en más de sesenta cubiertas de libros, entre los que se encuentra toda la obra de Carson McCullers en castellano. Consiguió el Premio Euskadi de Ilustración 2012 por su trabajo en *La flor roja* y el Premio Nacional de Arte Joven del Gobierno de Cantabria 2008 en la categoría de Ilustración.

Como autora, ha escrito e ilustrado *La vida de las paredes* (Lumen, 2015) y *Flor fané* (Astiberri, 2021).



## ANDREA GANZA

Marrazkilaria  
Dibujante

Bere praktika artistikoa arte bisual eta grafikoen artean dago, eta irudien narratiba, lengoaien hibridazioa eta komikiaren mugen hedapena interesatzen zaizkio, arte garaikidearen alderditzat hartzen baitu.

Instituzioen espazioetan eta autoedizioari eta fanzineari lotutako proposamenekin aritu da lanean, egonaldi artistikoak egin ditu Kolonbian, Brasilen, Frantzian eta Kanadan, eta bere marrazkiak Reina Sofía Museoan, CentroCentron eta Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaon egon dira erakusgai.

Su práctica artística se sitúa entre las artes visuales y gráficas, centrando su interés en la narrativa de las imágenes, la hibridación de lenguajes y la expansión de los límites del cómic, entendiéndolo como una vertiente del arte contemporáneo.

Desarrollando su trabajo tanto en espacios institucionales como con propuestas ligadas a la autoedición y el fanzine, ha realizado residencias artísticas en países como Colombia, Brasil, Francia o Canadá y sus dibujos han sido expuestos en espacios como Museo Reina Sofía, CentroCentro o Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbao.



## CINTA FOSCH

Ilustratzailea  
Ilustradora

Prensa eta argialetxeetako ilustratzailea. Estatuko eta nazioarteko komunikabideetan eta argitalpenetan kolaboratzen du aldizka, hala nola Revista 5W, El Mundo, elDiario.es eta Foreign Affairs Magazine argitalpenetan. Liburuak ilustratu ditu, besteak beste, *Obligados a partir* (2024), *Retomar el control. 50 Reflexiones para repensar nuestro futuro* (2024), *Einstein. Mis ideas y visión del mundo* (2023), *Pensamiento crítico ilustrado* (2022), *Frederick Douglass. ¿Debo argumentar el sinsentido de la esclavitud?* (2021). Liburu-azalak egiten ditu Planeta, Penguin Random House Mondadori, Anagrama, Galaxia Gutenberg, Periscopi, Automática eta CSIC argialetxeentzat.

Ilustradora de prensa y editorial. Colabora regularmente en medios de comunicación y publicaciones nacionales e internacionales, como Revista 5W, El Mundo, elDiario.es o Foreign Affairs Magazine. Ha ilustrado los libros *Obligados a partir* (2024), *Retomar el control. 50 Reflexiones para repensar nuestro futuro* (2024), *Einstein. Mis ideas y visión del mundo* (2023), *Pensamiento crítico ilustrado* (2022), *Frederick Douglass. ¿Debo argumentar el sinsentido de la esclavitud?* (2021), entre otros. Realiza cubiertas para las editoriales Planeta, Penguin Random House Mondadori, Anagrama, Galaxia Gutenberg, Periscopi, Automática y CSIC.

## Jardunaldiaren aurkezpena: Presentación de la jornada:



# INÉS GARCÍA, PAULA DUCAY

## Punzadas Sonoras

Zuzendariak  
Directoras

Inés García Filosofian graduatua da UAMen, Etika Aplikatuko Masterra du UCMn eta Kultura Kudeaketako eta Berrikuntza Sozialeko Masterra UCMn. Justizia espaziala, landartarasuna eta antzeko gaiak ikertu nahi ditu.

Paula Ducay Filosofian graduatua da, eta Edizioko Masterra du egina UAMen. Liburuen munduarekiko grina eta interesa izan ditu txikitatik, eta lanean aritzen da idazle, editore eta itzultzaile gisa. 2024ko otsailean argitaratu zuen lehen eleberria, *La ternura*.

Inés García eta Paula Ducay Punzadas proiektu kulturala sortu zuten, Punzadas Sonoras podcasta zuzentzen dute eta hainbat jarduera kultural antolatzen dituzte.

Inés García es graduada en Filosofía por la UAM, máster en Ética Aplicada por la UCM y máster en Gestión Cultural e Innovación Social en la UCM. Está interesada en investigar sobre temas como la justicia espacial o la ruralidad.

Paula Ducay es graduada en Filosofía y máster en Edición por la UAM. Desde niña ha cultivado la pasión e interés por el mundo de los libros y contribuye profesionalmente a sus diversas ramas como escritora, editora y traductora. En febrero de 2024 publicó su primera novela, *La ternura*.

Inés García y Paula Ducay son las fundadoras del proyecto cultural Punzadas, dirigen el podcast Punzadas Sonoras y organizan diversas actividades culturales.

# INPRIMATU IMPRIMIR

Inprimategiek lan ikusezina baina funtsezkoa egiten dute liburuaren katean, izaera transmititzen eta kostuetan eta PSNan eragiten baitute. Aurrerapen teknologikoekin eta ingurumen-krisiarekin, gero eta erabakigarriagoa da zer inprimatu eta nola inprimatzen den.

Las imprentas hacen un trabajo invisible pero fundamental en la cadena del libro, ya que transmite carácter e incide en los costes y en el PVP. Con los avances tecnológicos y la crisis medioambiental, qué se imprime y cómo se hace se está volviendo crucial.



# IÑAKI GARCINUÑO

## Grupo Gráfico Garcinuño

---

Presidentea  
Presidente

Grupo Gráfico Garcinuño taldeko kudeatzailea. Zuzenbidean lizentziaduna eta Ekonomia espezialitatean diplomaduna da Deustuko Unibertsitatean. Gaur egun Historia gradua egiten ari da UHUNen.

Banco de Vasconian (Grupo Popular) hasi zen lanean, eta 1996an Garcinuño Comunicación Gráfica enpresa familiarrean sartu zen. Orain, Grupo Gráfico Garcinuño da, Samper Impresores erosi eta Plotea Carteles y Montajes sortu ondoren.

Bizkaiko Arte Grafikoen Elkarteko presidentea, Espainiako Industria Grafikoen Enpresa Federazioko Zuzendaritza Batzordeko kidea (2008-2021) eta Bizkaiko Enpresarien Konfederazioko Batzorde Exekutiboko presidentea izan da (2013-2021).

Gerente del Grupo Gráfico Garcinuño, es licenciado en Derecho y diplomado en Especialidad Económica por la Universidad de Deusto. Actualmente cursa el Grado de Historia por la UNED.

Inició su actividad profesional en el Banco de Vasconia (Grupo Popular) y en 1996 se incorporó a la empresa familiar Garcinuño Comunicación Gráfica, convertida ahora en el Grupo Gráfico Garcinuño, tras la compra de Samper Impresores y la creación de Plotea Carteles y Montajes.

Ha sido presidente de la Asociación de Artes Gráficas de Vizcaya, miembro de la Junta Directiva de la Federación Empresarial de Industrias Gráficas de España (2008-2021) y presidente del Comité Ejecutivo de la Confederación Empresarial de Bizkaia (2013-2021).





## MONTŞERRAT GONZALEZ

### **Agpograf, S.A**

Zuzendari nagusia  
Directora general

Zuzendari nagusia da Bartzelonan kokatuta dagoen Agpograf, S.A. arte grafikoen enpresan.

Arlo humanistikora bideratu zuen unibertitateko prestakuntza, eta 1984an Pedagogia Terapeutikoan graduatu zen. Hala ere, bere proiektu profesionala Agpograf-ekin lotuta egon den beti, eta 40 urtetik gorako ibilbide luzea eta bizia egin du bertan.

Liburuak dira bere pasiorik handienetako bat. Lehenik, irakurketa, eta, gero, produktuaren kalitatea, eta, enpresamailan, ekoizpen editorialak zaintzeko "obsesioa" xehetasun guztietan.

Es la directora general de la empresa de artes gráficas Agpograf, S.A. instalada en Barcelona.

Su formación universitaria se orientó al ámbito más humanista, graduándose en el año 1984 en Pedagogía Terapéutica, aunque su proyecto profesional ha estado siempre vinculado a Agpograf, en un largo e intenso recorrido de más de 40 años.

Una de sus grandes pasiones son los libros. En primer lugar, la lectura, pero también la calidad del producto y, a nivel de empresa, la "obsesión" para cuidar las producciones editoriales en todos sus detalles.



## PEDRO SÁNCHEZ

**Cosmos Gráfico**

CEO

Coruñako Eskola Grafikoan ikasketak amaitu ondoren, Pedro Antonio Sánchezek hogeitertirik gorako ibilbidea egin du arte grafikoaren sektorean, batez ere inprimategietan. Denbora horretan lortutako esperientziari eta jakintzari esker, 2024an Cosmos Gráfico jarri zuen abian. Aholkularitza grafikoko proiektu hau espezializatuta dago argitalpenaren sektoreko enpresei aholkularitza ematen materialei, akaberei, formatuei eta produkzioko lan bat egitean kontuan hartu beharreko gainerako ezaugarri teknikoiei buruz, azkenean argitara eman arte.

Tras finalizar sus estudios en la Escuela Gráfica de A Coruña, Pedro Antonio Sánchez ha desarrollado una carrera de más de veinte años en el sector de las artes gráficas, principalmente en imprentas. La experiencia y el conocimiento adquirido en este tiempo le llevaron a poner en marcha en 2024 Cosmos Gráfico. Este proyecto de consultoría gráfica está especializado en asesorar a empresas del sector editorial sobre materiales, acabados, formatos y demás características técnicas a tener en cuenta a la hora de llevar a cabo un trabajo en producción y que finalmente vea la luz.

# SARE SOZIALAK REDES SOCIALES

Komunikazioa zeharkakoa da liburuaren kate osoan. Euskarri tradizionalenez gain, sare sozialak bibliodibertsitatearen babesa dira, ahotsa eta ikusgarritasuna ematen baitizkiote edizioari. Aldi berean, haietan oinarritzen da teknofeudalismoa, dibertsitatearen kontrakoa lortu nahi duena. Kontraesan hori da bere erronkarik handietako bat.

La comunicación es transversal a toda la cadena del libro. Además de los soportes más tradicionales, las redes sociales son una salvaguarda de la bibliodiversidad dando voz y visibilidad a la edición. A la vez, son el lugar donde se cimenta el tecnofeudalismo que aspira a lo contrario de la diversidad. Esta contradicción es uno de sus grandes desafíos.



## LORENA FERNÁNDEZ PRIETO

@no\_soy\_sibila

Lorena Fernández Prieto Arte Ederretan lizentziaduna eta Ikasketa Feministetan masterduna da. Liburu-saltzailea da, eta literatura-dibulgazioan ere aritzen da sare sozialetan, emakume egileak berreskuratzeko eta artxibo-lana egiteko ahalegina eginez, ikuspegi feminista duen irakurketa sakona sustatzeko.

Lorena Fernández Prieto es licenciada en Bellas Artes y máster en Estudios Feministas. Es librera y también se dedica a la divulgación literaria en redes sociales, poniendo énfasis en la recuperación de autoras y en hacer una labor archivística que promueva la lectura de fondo y con perspectiva feminista.



## SARA ROQUETA

### Podcast *Mucho Texto*

Zuzendaria eta aurkezlea  
Directora y presentadora

Kazetaritzan trebatua Valentziako Unibertsitatean, eta kultura-kritikan espezializatua. Literatura, Arte eta Pentsamenduko Ikasketa Konparatuen Masterra egina du Pompeu Fabra Unibertsitatean. Hainbat hedabidetan idatzi du, hala nola Levante-EMV, Las Provincias, BcnMés eta Grupo Planetan. Azken argitaletxe horretan aldizkariaren erredaktore gisa lan egin zuen.

Gaur egun erredaktore burua da *códigonuevo*-n, eta gaurkotasuneko informazioa egokitzen du formatu digital berrietara. Bi liburu-podcast zuzendu eta aurkeztu ditu, *Mucho Texto* eta *Mejor que arder*, biak publiko gazteari irakurketa hurbiltzera bideratuak, sare sozialen eta *códigonuevo*-ren kanalen bidez.

Formada en Periodismo por la Universitat de València y especializada en crítica cultural con un Máster en Estudios Comparados de Literatura, Arte y Pensamiento en la Universitat Pompeu Fabra. Ha escrito en medios como Levante-EMV, Las Provincias, BcnMés o Grupo Planeta, editorial para la que trabajó como redactora de revistas.

Actualmente trabaja como redactora jefa en *códigonuevo*, donde adapta la información de actualidad a nuevos formatos digitales. Ha dirigido y presentado dos podcasts de libros, *Mucho Texto* y *Mejor que arder*, ambos enfocados en acercar la lectura a un público joven a través de las redes sociales y los diferentes canales de *códigonuevo*.



## LUCÍA PÉREZ OROZ

### **Libros del K.O.**

---

Prensa eta sare sozialen  
arduraduna  
Responsable de prensa  
y RRSS


Kazetaria da eta Libros del K.O. argitaletxean lan egiten du. Bertan, prentsaren, sare sozialen eta argitaletxearen podcastaren arduraduna da (*Todo va a salir mal*). Noizbehinka, Producciones del K.O.-n aritzen da lankidetzan, eta, aisialdian, gidoiak idazten ditu.

Es periodista y trabaja en la editorial Libros del K.O., donde es responsable de la prensa, las redes sociales y el podcast de la editorial (*Todo va a salir mal*). Colabora esporádicamente en Producciones del K.O. y, en su tiempo libre, se dedica a escribir guiones.

# JAIALDIAK FESTIVALES

Jaialdietan liburuak hurbileko artefaktu bihurtzen dira, solasean aritzeko zubi, idazten duena eta irakurtzen duena hurbiltzeko. Jaialdiak topaguneak dira, argitaratzeak bere azken zentzua hartzen du bertan, irakurleak deskubritu, eta masa kritiko aktiboa sortuta.

En los festivales, los libros se convierten en artefactos de proximidad, en puentes para poder conversar, para aproximar a quien escribe y a quien lee. Los festivales son lugares de encuentro donde el publicar toma su sentido último para descubrir públicos lectores y donde generar una masa crítica activa.



## JUAN INSUA

### Kosmopolis

Zuzendaria eta sortzailea  
Director y fundador

Juan Insua CCCB Lab-eko zuzendaria izan zen, eta 1993tik dago lotuta CCCBri (Centre de Cultura Contemporània de Barcelona), hainbat proiekturen buru izan da hor. Erakusketa-ziklo hau sortu eta komisariatu du: *Las ciudades y los escritores: El Dublín de James Joyce* (1995, FAD Saria "Espacios efímeros" kategorian), *Las Lisboas de Pessoa* (1997, Laus'98 Saria hiru dimentsioko komunikaziorik onenari), *La ciudad de K. Franz Kafka y Praga* (1999) eta *Borges y Buenos Aires* (2002, Ciudad de Barcelona 2003 Saria). 2002tik Kosmopolis zuzentzen du, Literatura Anplifikatuaren Jaia.

Juan Insua fue director del CCCB Lab y está vinculado desde 1993 al CCCB (Centre de Cultura Contemporània de Barcelona), donde ha estado al frente de diferentes proyectos. Concibe y comisaría el ciclo de exposiciones *Las ciudades y los escritores: El Dublín de James Joyce* (1995, Premio FAD en la categoría "Espacios efímeros"), *Las Lisboas de Pessoa* (1997, Premio Laus'98 a la mejor comunicación tridimensional), *La ciudad de K. Franz Kafka y Praga* (1999) y *Borges y Buenos Aires* (2002, Premio Ciudad de Barcelona 2003). Desde 2002 dirige Kosmopolis. La Fiesta de la Literatura Amplificada.





## BEGOÑA MORÁN

### **BilbaoPoesía**

---

Zuzendaria  
Directora

Bidebarrieta Kulturguneko kultura-jardueren arduraduna eta BilbaoPoesía jaialdiaren zuzendaria. Irakasle-ikasketetan diplomatua eta Filosofian eta Hezkuntza Zientzietan lizentziaduna da. Musika Zientzien Institutu Konplutentseko Kultura-Enpresen eta -Erakundeen Kudeaketako goi mailako ikastarora eta UCMko Kultura Kudeaketako Masterra egin ditu. Kultura-kudeaketan, kulturako komunikazio digitalean, liburutegi publikoetako gamifikazioan eta kultura sektoreko jasangarritasun eta ekonomia zirkularrean trebatu da, besteak beste.

Es responsable de actividades culturales de Bidebarrieta Kulturgunea y directora del Festival BilbaoPoesía. Diplomada en Magisterio y Licenciada en Filosofía y CC de la Educación, ha realizado el curso superior de Gestión de Empresas y Organizaciones Culturales del Instituto Complutense de Ciencias Musicales y del Máster en Gestión Cultural de la UCM. Formada en gestión cultural, comunicación digital en cultura, gamificación en bibliotecas públicas y sostenibilidad y economía circular en el sector cultural, entre otras.



## SHEILA CREMASCHI

### Hay Festival España

---

Zuzendaria  
Directora

Historian lizentziaduna eta Kudeaketa eta Politika Kulturaletan magisterraduna 2007tik, Hay Festival Foundation-en (Gales-Erresuma Batua) Aholku Batzordeko presidenteordea da. Hura sortu zenetik, Segoviako XX. edizioa eta Hay festival Fórum Sevilla-ren III. edizioa zuzendu ditu. 2020an, Hay Festival Foundation-ek (Gales, Erresuma Batua, Latinoamerika eta Espainia) Komunikazio eta Humanitateen Asturiasko Printzesa Saria jaso zuen.

Licenciada en Historia y magíster en Gestión y Políticas Culturales. Desde 2007 es vicepresidenta del Consejo Asesor Hay Festival Foundation (Gales-Reino Unido). Desde su creación dirige la XX edición del Hay Festival en Segovia y la III del Hay Festival Forum en Sevilla. En 2020, el Hay Festival (en Gales, Reino Unido, Latinoamérica y España) fue Premio Princesa de Asturias de Comunicación y Humanidades.



## LUIS POSADA

### **Festival Eñe**

---

Zuzendaria  
Director

Luis Posada Artearen Historian eta Kultura Kudeaketan trebatu zen, eta gaur egun La Fábricako literatura-jaialdien arloko zuzendaria da. Hainbat proiektu zuzentzen ditu bertan, hala nola Eñe Jaialdia eta beste ekimen berri batzuk: FILE-Espainiako Literaturaren Nazioarteko Jaialdia eta Fronteras València: musika eta literatura jaialdia. Literatura-proiektuak kudeatu ditu instituzio publiko batzuentzat, hala nola Liburuen Gaua (Madril), Getafe Negro polizia-eleberriaren jaialdia (Madril), Toulongo Liburu Azoka (Frantzia) eta Nîmeseko Biografiaren Jaialdia (Frantzia).

Formado en Historia del Arte y Gestión Cultural, Luis Posada es actualmente director del área de Festivales literarios de La Fábrica, desde donde dirige proyectos como el Festival Eñe y otras iniciativas recientes tales como FILE-Festival Internacional de Literatura en Español o el Festival Fronteras València: música y literatura. Ha gestionado para distintas instituciones públicas otros proyectos literarios como La Noche de los Libros (Madrid), el Festival de novela policiaca Getafe Negro (Madrid), la Feria del Libro de Toulon (Francia) y el Festival de la biografía de Nîmes (Francia).

**+INFO**



LG BI 00156-2025

**gutunzuria.azkunazentroa.eus**

**AZKUNA  
ZENTROA  
ALHÓNDIGA  
BILBAO**

**Bilbao**



**urbegi**

**INSTITUT  
FRANÇAIS  
BILBAO**

**renfe**



**EL CORREO**

**SEIZ**

**Deia**

**radio 3**